



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## Batzar Nagusien Bilboko egoitzaren aurrekaldean jarritako "Ispilu-Ispilutxo" murala ikusteko azken egunak

Bilbon, 2013ko apirilaren 19an

Batzar Nagusien Bilboko egoitzaren aurrekaldean jarritako artelanak “Edunezuri eta zazpi ipotxak” ipuin klasikoaren hausnarketea egiteko aukerea emoten deutse bertatik dabilzanei. Andrea Abalia eta Sandra Rilova artista gateek egindako lana, “Ispilu-Ispilutxo” izengaz neurri handiko bost muralez osatutakoa, orain hamar egun instalatu zan eta oso deigarri suertatu da bilbotarrentzat, Bizkaiko Batzar Nagusietan antolatutako erakusketarik arrakastatsuenetarikoa izateraino heldu dalarik.

Bost eszena dituan murala da, Batzar Nagusien kanpoko burdin hesian jarritakoa, “Edunezuri eta zazpi ipotxen” ipuin ospetsuaren ikuspegi narratibo barria emonaz. Artelan atonkera pertsonala eta iragankorra da, neurri handikoa —20 metro koadru—, ikusgarria Bilboko Hurtado de Amezaga kalean dabilen edonorentzat. Artelan horrek osatu egiten dau gaur egun Batzar Nagusien erakusketa aretoan ikusi leiteken “Alter Ego” izeneko erakusketea. Erakusketea luzatu egin da, apirilaren 24ra arte.

Artelan horregaz, bada, artistek hausnarketea edegi gura dabe Edunezurik eta Sorginak —ontasunak eta gaiztakeriak— islatzen dituen balio eta ezaugarriez eta gaur eguneko gizartean daben eraginaz. Rilovak (Burgos, 1988), Edunezuri ordezkatzuz, eta Abaliak (Bilbao, 1984), amaordea ordezkatzuz, dinoe hautatutako pertsonaiok “emakumezkoen betiko lehia” irudikatzen dabela.

UPV/EHUko Arte Eder Fakultatetik urtendako artista bion proposamena “lekuna bertan” egin da zati baten, Batzar Nagusiek eskainitako askatasunari esker. Gogoratu Batzar Nagusien eta unibertsitatearen arteko lankidetzatik datorrela erakusketea. “Bakotxaren pinturetatik urten eta arte partehartzaileagoa sustatzea nahiago izan dogu”. Gaia librea zan, baina Abalia —artista bilbotarra, Lide Kaltzadagaz batera egoitzaren barrualdeko erakusketa-aretoan “Alter Ego” bilduma daukona erakusgai— emakumezko pertsonai unibertsal horretan sakontzearen alde agertu zan. Berak eta Rilovak ipuin klasikoa nahi eben, lehenengo ipuin horretan euren buruak kokatu eta hortik abiatuta gaurkotasunera eroan gai unibertsalak erabilita, esaterako “feminidatea, boterea edo zahartzea”.

Rilovak eta Abaliak “ispilua” kontzeptua erabilten dabe gainera, barrukaldean dagoan “Alter Ego” errakusketeagaz buztarturik. Hain zuzen be, egin dituen bost eszenetako bat amaordea, erreinuko emakumezko ederrearen bila, ispiluari begira dagoana da. “Emakumezko baten asmo gorena ederra izatea bada, guztiz kritikagarria da” esan dau Andreak. Emakumearen boterearen burruka hori, “ederrena nor dan bilatzen dauena”, beste eszena “giltzarri” bitan be agertzen da, amaordearen aginduz ehiztaria Edunezuri



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

hiltzera doanean edo sorginak lehiakiderik ederrena akatu gura dauenean bainuontzian, nahiz eta eszena hori agertu ez ipuinaren bertsinorik ezagunenean, gehienetan pozoindutako sagarra erabili da-ta.

Artista biok autortu dabe ikutu “zitara” daukiela kuadro batzuk eta “ironikoagoa” beste batzuk. Esate baterako, pintoretako baten amaordea “ederra baino ederragoa agertzen da ispiluan, baina burusoil atzealdetik”. Beste baten, ostera, Edurnezuri etxeko-andra zereginetan erridikulizatu egiten da, etxeko lanak egiten zoriontsu agertzen dalako eta testuan esaten dalako “Txistuka lanean, edozein zeregin umore onean”.

Maitagarrien ipuinak hondino be irauten dabe gaur eguneko gizartean. Feminidadearen estereotipoa, “egun guztian zehar ezin hobeto egotea”, bardin izanik “lotan, hilda edo etxeko lanak egiten” artistak bilatu daben alderdi kritikoa da, muralak ikusteko gelditzen diran pertsonen pertzepzinoak eta interpretazinoak biltzeko ahaleginean.

#### LEHENENGO BALORAZINOA

“Ispilu-Ispilutxo” erakusketeak aste bitan, egileen eretxian, lortu dau danetariko ikusleek hausnartzea gero eta geldoagoa, kontsumistagoa eta norberekoiagoa dan gizarte honegatzko “espíritu kritikoa” dauen ekimen artistiko honen arrazoien inguruan. Abalia eta Ricova egileek itxaroten dabe mezu horrek emakumezkoengan eragina lortu izana, “batez be gazte eta nerabeengan”. Proposamen hori “erreferente kritikoa” bihurtu gura eben “emakumezkook gizartearendik jasan behar ditugun inposaketan inguruan, edertasuna eta alkarrenganako ardatz dirala”.

Iragarkietan erabili ohi diran euskarri berberak erabiliz, instalazinoak “lortu dau kalean dabilzanengan jakingura eta gozamina sortzea, geldialdia egiteko beta emon eta pentsatzea eraginez”. Artista biok lortu dabe, bada, gura ebena: artelana kalera eroatea eta gura dauenak geldialdia egin eta arte kritikoa ikustea, ordaindu barik, ilaretan egon barik, denporea galdu barik eta begiratzen inor behartu barik, ezpada ze borondatez”.

Erakusketeak kalean sortarazoten dauen harridureak, bide batez, lortu dau Batzar Nagusien egoitza barruko erakusketa-aretoan dagoan “Alter Ego” erakusketeak “bisitari kopuru handia” izatea.

Laburtzearren, erakusketeak danetariko ikusleen interesa sortarazo dau, erakusbide “orijinala eta familiarra” erabiliz. Egiléek eurek dinoen moduan, batzuei “tonu ironikoagaitik” edo “satirikoagaitik” gustatu jake eta beste batzuei, ostera, proposatutakoaren “originaltasuna” egin jake deigarri; “pinturen egikerea eta misterioa” azpimarratu dabe beste ikusle batzuk.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## Último día para ver la obra mural "Espejito, espejito" en el exterior de la sede de las Juntas Generales

Bilbao, a 19 de abril de 2013

La sede bilbaína de las Juntas Generales luce en su exterior una obra pensada para que los transeúntes se detengan a reinterpretar el clásico cuento de “Blancanieves y los siete enanitos”. La transformación acometida por las jóvenes artistas Andrea Abalia y Sandra Rilova, un conjunto formado por cinco obras aglutinadas bajo el título “Espejito, espejito”, ha sorprendido gratamente al público bilbaíno desde que se instalaron hace diez días en el vallado exterior, hasta el punto de que se ha convertido en una de las exposiciones de mayor éxito acometidas por las Juntas Generales de Bizkaia.

Un mural con cinco cuadros de gran formato desplegados a pie de calle en el edificio del parlamento vizcaíno, ofrece un nuevo enfoque narrativo de la célebre fábula infantil. Es un conjunto artístico personal y efímero, de grandes dimensiones -20 metros cuadrados- que no pasa desapercibido y que está abierto a la interpretación ciudadana en la céntrica calle Hurtado de Amezaga de Bilbao. La intervención artística completa la exposición “Alter Ego” ubicada en el interior de la sede. Ambas iniciativas estarán expuestas hasta el próximo miércoles, 24 de abril.

Según las autoras, las escenas que narran en sus cuadros abren una senda de reflexión sobre los valores y cualidades que encarnan las figuras de Blancanieves y la malvada bruja - la buena y la mala -, y su influencia en la sociedad actual. Según Rilova (Burgos, 1988), que hace de Blancanieves, y Abalia (Bilbao, 1984) metida en la piel de la madrastra, los personajes elegidos representan la eterna "rivalidad femenina".

La propuesta artística de las exalumnas de la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU, se ha desarrollado parcialmente “in situ” aprovechando la libertad ofrecida por las Juntas Generales, institución que ha promovido la intervención pictórica en colaboración con la universidad. "Nos apetecía salir de la pintura individualista y fomentar un arte más participativo". La temática era libre, pero Abalia, artista bilbaína que presenta la colección “Alter Ego” junto con Lide Kaltzada -en el interior de esta misma sede-, se decantó por ahondar en este personaje femenino universal. Tanto ella como Rilova querían un cuento clásico en donde primeramente reconocerse, y después encajar la historia en la actualidad con temas tan universales como “la feminidad, el poder o el envejecimiento”.

Rilova y Abalia utilizan además en sus obras el concepto del “espejo” en comunión con la exposición del interior “Alter Ego”. Precisamente, una de las cinco escenas se centra en el momento en el que la madrastra se mira al espejo para encontrar a la mujer más bella del reino. “Si la máxima aspiración de la mujer es ser guapa es algo absolutamente criticable”, resume Andrea. La lucha por el poder femenino, “por ver quien es más



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

bella”, se refleja también en otras dos escenas “clave”, cuando el cazador va en busca de Blancanieves para asesinarla por mandato de la madrastra o cuando la bruja intenta acabar con la competencia más bella en la bañera, una escena oculta en la versión más conocida del cuento que casi siempre se ha servido de la manzana envenenada.

Las dos artistas reconocen que incluyen un punto “siniestro” en algunos cuadros y “más irónico” en otros. Por ejemplo, en una de las pinturas aparece la madrastra "monísima frente al espejo, pero calva por detrás", dice Rilova. En otro, se ridiculiza el rol de la Blancanieves ama de casa, que disfruta con las tareas del hogar porque "silbando al trabajar, cualquier quehacer es un placer", reza uno de los textos.

Los cuentos de hadas siguen vigentes en la sociedad actual . El estereotipo de la feminidad, “de estar perfectas todo el día”, ya sea “ dormidas, muertas o haciendo las labores de la casa”, es el barniz crítico que buscan las artistas, aunque plantean el trabajo también como un “aprendizaje”, en un intento por recoger las percepciones e interpretaciones de las personas que se detengan a ver las obras.

## VALORACIÓN INICIAL

“Espejito, espejito” ha conseguido en dos semanas, según sus autoras, que un público heterodoxo reflexione sobre el motivo de esta iniciativa artística con “espíritu crítico”, en una sociedad “cada vez más pasiva, consumista e individualizada”. Abalia y Rilova esperan que su mensaje haya calado entra las mujeres “especialmente entre las jóvenes y adolescentes”. Que hayan visto en esta propuesta un “referente crítico sobre las imposiciones sociales que padecemos las mujeres, basadas en la belleza y la rivalidad”.

Usando los mismos puntos de apoyo de la publicidad, la instalación “ha penetrado en el imaginario de los paseantes provocando su curiosidad y disfrute, interrumpiendo su paso automático, incitándoles finalmente a pensar”, piensa Rilova. Las dos artistas han conseguido lo que pretendían: llevar el arte a la calle para que quien lo deseara pudiera detenerse a ver una obra crítica “sin pagar, sin hacer cola, sin perder tiempo y sin sentirse obligado a mirar, sino sólo por verdadero interés”.

La irrupción sorpresiva que suponía la muestra en plena calle ha conseguido además que la muestra del interior “Alter Ego” de la Sala de Exposiciones de las Juntas Generales haya conseguido una “afluencia de gente inédita” hasta ahora, presume Abalia.

En definitiva, la muestra ha alcanzado el interés de todos los públicos a través de una puesta en escena “original y familiar” que ha provocado -según sus creadoras- que unos hayan disfrutado con el tono "irónico, satírico o de misterio" que transmitían las pinturas, mientras otros apunten a la “originalidad” de la propuesta o a la “ejecución” de una obra pensada para la sede bilbaína de las Juntas Generales.